3.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua organo aginpideduna da espediente hau ebazteko, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren egitura organikoa ezartzen duen uztailaren 28ko 160/2000 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Purificación Bernal Seco andreak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren etxebizitza eskatzaileen erregistroan (Etxebide-Etxebizitzen Euskal Zerbitzua) egindako inskripzio eskaria artxibatzea, agindu honetan jasotzen den arrazoiarengatik.

2.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari zuzenduta; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik zuzenean, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salaren aurrean. Bietarako epea jakinarazpena egiten den egunaren biharamunean hasiko da, eta hilabetekoa izango da lehenengoarentzat eta bi hilabetekoa bigarrenarentzat.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 17a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

3.– El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales es el órgano competente para la resolución del presente expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 60/2000, de 28 de julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

1.– Archivar la solicitud de inscripción de D./D.ª. Purificación Bernal Seco en el Registro de solicitantes de vivienda del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales (Servicio Vasco de Vivienda-Etxebide), por el motivo expresado en el cuerpo de la presente Orden.

2.– La presente Orden agota la vía administrativa y contra la misma procede interponer bien recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, o directamente recurso contencioso-administrativo, que habrá de ser interpuesto ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2001.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## OSASUN SAILA

## Zk-2445

AGINDUA, 2002ko martxoaren 26koa, Osasun sailburuarena, zeinaren bitartez ikerketa-lanei laguntzeko ekintza berezietarako deialdia egiten baita, nazioarte mailako kongresuetan eta batzar zientifikoetan parte hartzeko eta izen handiko aldizkarietan artikulu zientifikoak argitaratu ahal izateko.

Osasun Sailaren helburuetako bat EAEko pertsonal sanitarioaren artean osasun zientzien arloko ikerkuntza bultzatzea da eta ahal den etekinik handiena ateratzea egiten diren lanei, hori guztia nazio eta nazioarte mailako izen handiko beste erakunde batzuekin lankidetzan jardunez.

Horregatik, laguntza hauen helburua zera da, izaera sanitarioko nazioarte mailako kongresu eta batzar zientifikoetako partaidetza erraztea, hitzaldiak, komunikazioak eta beste zenbait ekarpen garrantzitsu aurkeztuz. Halaber, eragin zientifiko-sanitario esangura-

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-2445

ORDEN de 26 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan acciones especiales de apoyo a la investigación, para facilitar la participación en congresos y reuniones científicas internacionales y la publicación de artículos científicos en revistas de acreditado prestigio.

Uno de los objetivos del Departamento de Sanidad es el de impulsar la investigación en ciencias de la salud entre el personal sanitario de la CAPV y obtener el máximo rendimiento a los trabajos realizados, todo ello en colaboración con otras instituciones de reconocido prestigio nacional e internacional.

Por ello, el objeto de las presentes ayudas es facilitar la asistencia a congresos y reuniones científicas internacionales de carácter sanitario, en las que se participe con la presentación de ponencias, comunicaciones u otras aportaciones significativas. Asimismo, se pre-

tsua daukaten aldizkarietan artikuluak publikatzea bultzatu nahi da.

Hori horrela, eta urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak dionaren arabera

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Eremua eta xedea.

1.– Deialdi honen xedea ikerketa-lanei laguntzeko ekintza bereziak finantzatzea da. Osasun Saileko eta Osakidetzako langile eta bekadunei zuzenduta dago, bai eta horiekin lankidetzan diharduten irabazte asmorik gabeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza daukaten osasun instituzioei eta prestakuntza aldian dagoen pertsonal egoiliarrari ere. Bi modalitatekoak izango dira:

a) Kongresuetarako poltsak: osasun arlokoak izan eta nazioarte maila duten kongresuetan eta batzar zientifikoetan ponentziak, komunikazioak edo garrantzizko beste ekarpen batzuk aurkezteko izango dira. Kongresu edo batzarrak 2001eko azaroaren 1etik aurrera edo 2002 urtean zehar egingo dira.

b) Artikuluen Argitalpenetarako laguntzak: izen handiko aldizkarietan artikulu zientifikoak argitaratzeagatik onespena emateko izango dira, baldin eta artikulu horiek 2001eko ekitaldiko ekintza berezien deialdirako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren argitaratu edo onartu badira.

Artikuluek jatorrizkoak izan behar dute, Vancouver 2000ko baldintza bateratuen arabera, hau da, egitura estandarra –sarrera, materiala eta metodoak, emaitzak eta eztabaida– edo antzerakoa.

2.– Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da, modalitate bakoitzean. Ondorio hauetarako, aurkeztutako eskaeren arteko konparazioa egin ondoren emango dira laguntzak. Konparazio hau 6.artikuluan jarritako balorazio irizpideen araberakoa izango da. Honela, eskaeren arteko lehentasun-hurrenkera egingo da, eta honen arabera balorazio handien jasotzen duten eskaerak esleituko dira, betiere zeregin honetarako onartutako aurrekontuko kreditua agortu arte.

Kongresuetarako poltsen modalitatean, lehenengo deialdia ebaztean aurrekontuko baliabideak agortuko balira, Osasun sailburuordearen ebazpen bidez jakinaraziko litzateke inguruabar hori.

Kongresuetarako poltsen bigarren txandaren ebazpenaren ostean geldikinik balego, artikuluen argitalpenetarako erabilitako diru partida handitzeko erabiliko litzateke automatikoki.

3.– Diru-laguntzaren eskatzailea ezingo da sartuta egon dirua itzultzeko hasitako inolako prozeduratan, ez eta zigor prozeduratan ere, betiere izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan.

tende incentivar la publicación de artículos en revistas con un impacto científico-sanitario significativo.

En su virtud, y de conformidad con el contenido de la Ley 1/2002 de 23 de enero

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Ámbito y objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden financiar acciones especiales de apoyo a la investigación, destinadas a personal y becarios del Departamento de Sanidad y de Osakidetza-Servicio vasco de salud, así como de las instituciones sanitarias sin ánimo de lucro, sitas en la CAPV, que colaboran con ellos y al personal residente en formación en la CAPV, con dos modalidades:

a) Bolsas a Congresos: tendrán por objeto ayudar a la presentación de ponencias, comunicaciones u otras aportaciones significativas en congresos y demás reuniones científicas de carácter sanitario y de ámbito internacional que se celebren a partir del 1 de noviembre de 2001 o a lo largo de 2002.

b) Ayudas a Publicación de Artículos: tendrán como finalidad efectuar un reconocimiento a la publicación de artículos científicos en revistas científicas de reconocido prestigio, siempre que hayan sido aceptados o publicados después de finalizado el plazo de presentación de solicitudes a la convocatoria de Acciones Especiales del ejercicio 2001.

Los artículos deben ser originales según los requisitos uniformes de Vancouver 2000, es decir, tener una estructura estándar -introducción, material y métodos, resultados y discusión- o similar.

2.– La presente convocatoria se resolverá en cada modalidad por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 6, adjudicando sólo aquellas que hayan obtenido mayor valoración hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado a tal efecto.

En el supuesto de que al resolverse la primera convocatoria se agotasen las disponibilidades presupuestarias en la modalidad de Bolsas a Congresos, se daría conocimiento de dicha circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

Si tras la resolución de la segunda tanda de Bolsas a Congresos existiera remanente, se asignaría automáticamente a incrementar la partida dedicada a publicación de artículos.

3.– El solicitante de la ayuda no podrá hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

*2. artikulua.*– Diru-zenbatekoa.

Deialdiaren gai diren diru-laguntzak finantzatzeko diru-zenbatekoa 60.100 eurokoa (hirurogei mila eta ehun euro) izango da. Hauetatik, 39.100 euro kongresuetarako poltsetarako eta 21.000 euro artikuluen argitalpenetarako bideratuko dira.

*3. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Kongresu-poltsetarako:

Eskabideak egiteko bi epe zabaltzen dira:

Eskabideak aurkezteko lehenengo epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera. Epe honetan aurkeztu ahal izango dira 2001eko azaroaren 1etik 2002ko urriaren 31ra bitartean gauzatuko diren egintzetarako eskabideak.

Eskabideak aurkezteko bigarren epea 2002ko uztailaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da. Epe honetan aurkeztu ahal izango dira 2002ko maiatzaren 1etik urriaren 31ra bitartean gauzatuko diren egintzetarako eskabideak.

2.– Artikuluak argitaratzeko:

Epea 2002ko uztailaren 1ean hasi eta irailaren 30ean amaituko da. Epe horretan aurkeztu ahal izango dira 2001eko urriaren 1etik 2002ko urriaren 1era bitartean onartu edo argitaratu diren artikuluetarako eskabideak.

3.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara igorriko dira (Donostia kalea, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz).

Eskabideak, halaber, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran) zehaztutako gainerako bideei jarraituz aurkeztu ahal izango dira.

*4. artikulua.*– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

Diru-laguntza eskabide bakoitzari, agindu honetako I. eranskineko dagokion ereduaren arabera, agiri hauek erantsiko zaizkio:

1.– Kongresuetarako Poltsen eskabidea (I-a eranskina):

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Eskatzailearen curriculum vitae laburra. Berak egindako lanik argitaratu bada, lau argitarapen garrantzitsuenak jaso beharko dira.

c) Batzar zientifikoaren programa eta kongresu edo batzarreko komite zientifikoaren osaera.

d) Ikerketa Batzordearen txostena edo, horren ezean, dagokion zuzendari medikoarena edo dagokion figura-

*Artículo 2.*– Cuantía.

El importe destinado a financiar las ayudas convocadas asciende a 60.100,00 euros (sesenta mil cien euros), de los cuales 39.100,00 euros se destinan a Bolsas a Congresos y 21.000,00 euros a publicación de artículos.

*Artículo 3.*– Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

1.– Para Bolsas a Congresos:

Se abren dos plazos de solicitudes:

El primer plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir de la entrada en vigor de la presente Orden. Se podrán presentar en este plazo las solicitudes para actos que tengan lugar entre el 1 de noviembre de 2001 y el 31 de octubre de 2002.

El segundo plazo de presentación de solicitudes comenzará el 1 de julio y finalizará el 30 de setiembre de 2002. Se podrán presentar en este plazo las solicitudes referidas a los actos que se celebren entre el 1 de mayo y el 31 de octubre de 2002.

2.– Para publicación de artículos:

El plazo comenzará el día 1 de julio y finalizará el 30 de setiembre de 2002. Se podrán presentar en este plazo las solicitudes para los artículos aceptados o publicados entre el 1 de octubre de 2001 y el 1 de octubre de 2002.

3.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden, se dirigirán y remitirán al Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad (C/Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Así mismo, las solicitudes podrán presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

*Artículo 4.*– Solicitud y documentación a presentar.

A cada solicitud de ayuda, según el modelo del Anexo I de la presente Orden, deberá adjuntarse la documentación siguiente:

1.– Solicitudes de Bolsas a Congresos (Anexo I-a):

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

b) Curriculum Vitae resumido del solicitante, relacionando las cuatro publicaciones más importantes de las que sea autor, en su caso.

c) Programa de la reunión científica y composición del Comité Científico del congreso o reunión.

d) Informe de la Comisión de Investigación o, en su defecto, del Director Médico o figura correspondiente

rena. Bertan adieraziko da eskatzailea gertakizunera joatearen egokitasuna.

e) Lantokiko zuzendariaren baimena bertara joateko.

f) Ponentziaren edo komunikazioaren testua edo laburpena.

g) Batzar zientifikoaren antolatzaileek komunikazioa onartzen dutela jasotzen duen agiri egiaztatzailea. Behin-behingoz, ponentzia edo komunikazioa bidali izanaren egiaztagiria onartuko da baldin eta, onarpenaren jakinarazpena jaso ondoren, espedientean sartu beharreko egiaztagiria bidaltzen bada.

h) Helburu bererako aurten eskatutako, eta dagokion kasuan emandako, beste finantzabide batzuei buruzko zinpeko aitorpena.

i) Datuen alta / hirugarren interesatua (II. eranskina).

2.– Argitalpenetarako laguntzen eskabideak (I-b eranskina):

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Curriculum vitae laburra. Berak azken bost urteetan idatziriko argitalpenen aipamena.

c) Argitaratutako edo onartutako artikuluaren kopia bat.

d) Datuen alta / hirugarren interesatua (II. eranskina).

Argitalpenetan, egilearen lanlekua adierazi beharko da, dagokion hizkuntzan eta modu honetan: Zerbitzua, Sekzioa, etab..; ospitalearen edo zentroaren izen ofiziala; udalerria; Euskal Autonomia Erkidegoa; Espainia.

3.– Hala komeni dela irizten dion kasuetan, Osasun Sailak egoki deritzon informazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango du.

4.– Eskabidearekin batera aurkeztu den dokumentazioa berreskuratzeko epea, laguntza ukatu den kasuetan, hilabetekoa izango da Osasun Sailburuordearen Ebazpenaren argitaratzetik kontatzen hasita.

***5. artikulua.***– Ebazpena.

1.– Eskabideak Osasun Sailburuordeak ebatziko ditu, Osasun Sailburuak berariaz izendatuko duen balorazio batzordearen proposamena oinarri hartuz. Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Balorazio batzorde hori osatuko dutenak hauek izango dira: lehendakari, Osasun zuzendariordea; bokalak: Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, Osakidetzako ospitaleetako ikerketa edo irakaskuntza batzordeetako lau ordezkari, Osasun Publikoko Zuzendaritzako ordezkari bat eta Osasun Antolamendu eta Plangintzako Zuzendaritzako bi teknikari, bietako batek, gainera, idazkari lanetan jardungo

avalando la pertinencia de la asistencia del solicitante al evento.

e) Autorización de desplazamiento del Director del Centro de trabajo.

f) Texto de la ponencia o comunicación, o su resumen.

g) Documento acreditativo de la aceptación de la comunicación por parte de los organizadores de la reunión científica. Provisionalmente, se aceptará el justificante del envío de la ponencia o comunicación con la condición de enviar, una vez recibida la notificación de la aceptación, documento acreditativo para ser adjuntado al expediente.

h) Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación solicitadas y, en su caso, concedidas para el mismo fin.

i) Alta de datos / tercero interesado (Anexo II).

2.– Solicitudes de ayudas a publicaciones (Anexo I-b):

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

b) Curriculum Vitae abreviado, indicando las publicaciones de las que sea autor en los últimos cinco años.

c) Copia del artículo publicado o aceptado.

d) Alta de datos / tercero interesado (Anexo II).

Las publicaciones deberán indicar el lugar de trabajo de sus autores, en el idioma correspondiente, de la siguiente forma: Servicio, Sección, etc.; nombre oficial del Hospital o centro; Municipio; País Vasco; España.

3.– En aquellos casos en que estime conveniente, el Departamento de Sanidad podrá recabar la presentación de la información complementaria que considere oportuna.

4.– El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los casos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

***Artículo 5.***– Resolución.

Las solicitudes serán resueltas por el Viceconsejero de Sanidad, mediante sendas Resoluciones que serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco, a propuesta de la Comisión de Valoración nombrada al efecto por el Consejero de Sanidad.

Dicha Comisión de Valoración estará presidida por el Viceconsejero de Sanidad y serán vocales: el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad cuatro representantes de las Comisiones de Investigación o Docencia de los Hospitales de Osakidetza-Servicio vasco de salud, un representante de la Dirección de Salud Pública y dos técnicos de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, actuan-

du. Batzordeko kideen izen-abizenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osasun sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean, aipatutako 30/1992 Legeko 114. eta hurrengo artikuluetan ezartzen denaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkerari jarraituz).

3.– Modalitate bakoitzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasi eta hiru hilabeteko epean Osasun Sailburuordearen ebazpena jakinarazi ez bada, ebatzi gabeko eskabideei ukoa eman zaiela ulertu beharko da, lehen aipatu den 30/1992 Legeko 44. artikuluan ezartzen diren ondorioetarako. Hala ere, administrazioak ebazpen adierazia emateko duen betebeharrak hor jarraituko du.

*6. artikulua.*– Esleitzeko irizpideak.

a) Kongresuetarako poltsak:

1.– Honako irizpide hauek erabiliko dira kongresuetarako poltsak esleitzeko:

Bileraren ospea; horren balorazioa egiteko batzorde zientifikoaren osaerari erreparatuko zaio: ... Gehienez %30.

Ekarpenaren kalitatea eta garrantzia; ekarpen mota esaterako: ahozko komunikazioa, posterra, etab.; osasun zentroak onetsitako ikerketa-bideekin duen lotura eta Osasun Sailaren arlo nagusiekin (Osasun Plana, zaharren aldeko atentzioa, emakumezkoen osasuna, asistentziaren kalitatea hobetzea eta Europako Batasunaren deialdietako gaiak) duen harremana: Gehienez %40.

Eskatzailearen curriculum vitae-a eta ikertzaile gisa duen ibilbidea: ........................... Gehienez %30.

2.– Zentro bateko langileek ekintza bererako beste poltsa-eskabide batzuk egiten badituzte, Balorazio Batzordeak kontuan hartuko du Ikerketa Batzordeak edo, horren ezean, zuzendari medikoak esleituriko lehentasun–hurrenkera

3.– Kongresu batera egile bat baino gehiagoren lana aurkezten denean, lehenengo izenpetzaileari poltsa emateko balioa izango du edo, horren ezean, aurkezpena egiten duen egileari.

b) Artikuluak argitaratzeko:

1.– Argitalpenak jaso dituen aldizkariak duen «eragin faktorea» kontuan hartuz esleituko dira argitalpenetarako diru-laguntzak. Faktore horrek 0,75etik gorakoa izan beharko du, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

do uno de ellos, además como secretario. Su composición nominal será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

3.– Si transcurridos tres meses desde la fecha de finalización del respectivo plazo de presentación de solicitudes, no se ha notificado la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán entenderse desestimadas las solicitudes no resueltas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992 antes mencionada, sin perjuicio de la obligación que dicha Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

*Artículo 6.*– Criterios de adjudicación.

a) Bolsas a Congresos:

1.– La adjudicación de las Bolsas a Congresos, será realizada de acuerdo a los siguientes criterios:

Prestigio de la reunión, para cuya valoración se tendrá en cuenta la composición del comité científico: .. Máximo 30%

Calidad y relevancia de la aportación, tipo de la misma, vg. comunicación oral, póster, etc., vinculación con una línea de investigación reconocida por el centro sanitario y su relación con las áreas prioritarias del Departamento de Sanidad, como son las relacionadas con el Plan de Salud, atención al anciano, salud de la mujer, mejora de la calidad asistencial y las áreas temáticas de las convocatorias de la Unión Europea: .. Máximo 40%

Curriculum vitae del solicitante y su trayectoria como investigador: ............................... Máximo 30%

2.– En el supuesto de que se presenten varias solicitudes de Bolsas por parte del personal de un mismo centro para el mismo evento, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta el orden de prioridad que les sea asignado por la Comisión de Investigación o, en su defecto, por el Director Médico.

3.– Cuando un trabajo sea presentado en un congreso por varios autores, servirá de justificante para la concesión de la Bolsa sólo para el primer firmante, o en su defecto, para el coautor que haga la presentación.

b) Publicación de Artículos:

1.– La adjudicación de las Ayudas a Publicaciones de Artículos será realizada de acuerdo con el «factor de impacto» de la revista en que hayan sido publicados, que deberá ser igual o superior a 0,75, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.

2.– Salbuespenez, «eragin faktore» horretara heltzen ez diren aldizkari zientifikoetan argitaratutako lanak hartu ahal izango dira kontuan.

3.– Lanaren argitaratzaileak bat baino gehiago direnean, lehenengo izenpetzailearentzat baino ez du balio izango justifikazioak, edo, horren ezean, berak berariaz baimendutako beste eginkidearentzat, edo artikulua egiten eta argitaratzen merezimenduz parte hartu duela frogatzen duen eskatzailearentzat.

7. *artikulua.*– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak jasotzen dituzten onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

1.– Emandako laguntza onartzea. Zentzu honetan, baldin 15 egun naturaleko epean, EHAAn emate ebazpena argitaratu den datatik kontatzen hasita, onuradunak espresuki eta idatziz laguntzari uko egiten ez badio, hau onartua izan dela ulertuko da.

2.– Laguntza emana izan den helburu zehatzerako erabiltzea.

3.– Deialdi honen kargura jaso diren dirulaguntzen inguruan eskatzen zaion informazio guztia eskuratzea Ekonomi Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, berez dagozkien funtzioen jardunean.

4.– Diru-laguntza eskabidean agertu ziren datu edo baldintzetakoren bat aldatzen bada, horren berri ematea, idatziz, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari, bai eta diruz lagundutako jarduera horietarako beste iturriren bateko finantzaketarik lortzen bada ere.

8. *artikulua.*– Laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan arautzen diren laguntzekin batera beste edozein diru-laguntza nahiz laguntza jaso ahal izango da helburu bererako, baldin eta horrek gainfinantzaketarik sortzen ez badu. Horrelakorik gertatuz gero, gutxitu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, dagokion gehienezko mugaraino

9. *artikulua.*– Diru-laguntzen hedapena eta mugak.

1.– Kongresuetarako Poltsen zenbatekoa, inskripzio, joan-etorri, ostatu eta mantenuko gastuen arabera kalkulatuko da.

Laguntza bakoitzaren zenbatekoa, gehienez ere, 902 eurokoa izango da Estatuan egiten diren batzarretarako, 1.082 eurokoa Europan egiten direnetarako eta 1.323 eurokoa munduko gainontzeko lekuetarako.

2.– Argitalpenetarako laguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

a) 3tik gorako eragin faktorea duten argitalpenentzat: 782 euro.

b) 1,5 eta 3 arteko eragin faktorea duten argitalpenentzat (biok barne): 632 euro.

2.– Excepcionalmente, se podrán considerar los trabajos publicados en revistas de carácter científico que por la especificidad del área que tratan no alcancen dicho «factor de impacto».

3.– Cuando un trabajo sea publicado por varios autores, servirá de justificante para la concesión de ayuda sólo para el primer firmante, o en su defecto, para el coautor al que aquél autorice expresamente o para el solicitante que demuestre su participación meritoria en la realización y publicación del artículo.

*Artículo 7.*– Obligaciones de los beneficiarios.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días naturales tras la fecha de la publicación de la Resolución de concesión en el BOPV, el beneficiario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

3.– Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

4.– Comunicar por escrito a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos que se reflejaron en la solicitud, así como la obtención de cualquier otro tipo de fuente de financiación para las actividades subvencionadas.

*Artículo 8.*– Compatibilidad de las ayudas.

La concesión de las ayudas reguladas en la presente Orden será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda para el mismo fin siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

*Artículo 9.*– Extensión y límites de las ayudas.

1.– La cuantía de las Bolsas a Congresos se calculará teniendo en cuenta el importe de la inscripción y los gastos de desplazamiento, alojamiento y manutención.

El importe máximo posible de cada subvención será de 902,00 euros para las reuniones celebradas en el Estado, 1.082,00 euros para las celebradas en Europa y de 1.323,00 euros para las del resto del mundo.

2.– El importe de las Ayudas a Publicación de Artículos será el siguiente:

a) Publicaciones de factor de impacto mayor de 3: 782,00 euros.

b) Publicaciones de factor de impacto entre 1,5 y 3 (ambos incluidos): 632,00 euros.

c) 0,75 eta 1,5 arteko eragin faktorea duten edo Batzordeak salbuespentzat jotako argitalpenentzat: 481 euro.

*10. artikulua.–* Ordaintzeko modua.

1.– Kongresuetarako poltsak ordainketa bakarraz emango dira, batzarrean egon eta honako agiri hauek aurkeztu ondoren:

– Batzarrean egon izanaren egiaztagiria.

– Batzarrari buruzko azalpen-memoria bat. Onuradunak egin ohi duen lana kontuan hartuz, batzarrak izan dituen alderik garrantzizkoenak jarriko dira memoria horretan.

– Inskripzio eta bidaiaren gastuen jatorrizko fakturak. Horiekin batera, diru-laguntzaren onuradunak batzarrera joatearen ondorioz izandako diru-sarreren eta egindako gastuen arteko balantzea.

Agiri horiek aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, diruz lagundutako ekintza amaitzen den egunetik hasita kontatuko dela epealdia.

3.1. artikuluko bigarren lerroaldean jasotzen den kasuan, hau da, 2001ko azaroaren 1etik aurrera edo deialdi hau argitaratzen den egunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan egingo diren batzarretan, Osasun Sailburuordeak laguntzak izendatzeko ematen duen ebazpena argitaratzen den egunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko dira agiri horiek. Osteratzean, dirulaguntzetarako eskubidea galdu egin dela deklaratu ahal izango da, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Argitalpenetarako diru-laguntzak ordainketa bakarraz emango dira, 7.1) artikuluan ezarritako epea behin amaituz gero eta onuradunak ez badio berariaz uko egiten.

*11. artikulua.–* Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, betiere helburua bete dela ulertzen bada, eta hala badagokio helburu berarekin beste erakunde pribatu edo publikoren baten laguntzarik jasoz gero, diru-laguntza ematen duen ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion likidazio-ebazpena emango du Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak, bertan diru-laguntzaren zenbatekoak doituko direlarik.

*12. artikulua.–* Arauak ez betetzea.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan agindutakoarekin bat etorriz, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena, baldin onuradunak betetzen ez baditu ezarritako baldintza eta epeak edota beka beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu egin duela eta, hala badagokio, jasota-

c) Publicaciones de impacto desde 0,75 hasta 1,5 ó publicaciones sin impacto consideradas excepcionalmente por la Comisión: 481,00 euros.

*Artículo 10.–* Forma de pago.

1.– El abono de las Bolsas a Congresos se realizará de una sola vez, con posterioridad a la asistencia a la reunión, previa presentación de la documentación siguiente:

– Certificado de asistencia.

– Memoria explicativa de la reunión resaltando los aspectos más destacados desde el punto de vista del desarrollo del trabajo habitual del beneficiario.

– Originales de las facturas de los gastos de inscripción y desplazamiento junto al balance de ingresos y gastos que con motivo de la asistencia a la reunión se le haya generado al beneficiario de la ayuda.

El plazo de presentación de dicha documentación será de dos meses a partir de la fecha de finalización del acto para el que se concedió la ayuda.

En el supuesto contemplado en el artículo 3.1, que se refiere a las reuniones celebradas desde el 1 de noviembre de 2001 ó que vayan a celebrarse en los dos meses posteriores a la publicación de la presente Convocatoria, la citada documentación deberá presentarse en el plazo de dos meses contados a partir de la publicación de la Resolución del Viceconsejero de Sanidad por la que se concedan las ayudas. En otro caso se podrá declarar la pérdida del derecho a la ayuda, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12.

2.– El abono de las Ayudas a Publicación de Artículos se realizará de una sola vez, una vez transcurrido el plazo indicado en el artículo 7.1) sin renuncia expresa del beneficiario.

*Artículo 11.–* Alteración de las condiciones de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación del importe de la ayuda. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna Resolución en la que se reajustará la cuantía de la subvención concedida.

*Artículo 12.–* Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que el beneficiario incumpliere los requisitos y los fines previstos en la presente Orden o el destino de la ayuda, se declarará, previa la substanciación de los trámites proce-

ko diru-zenbatekoak eta legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar dituela deklaratu ahal izango da, ebazpen bidez, prozedurazko izapideak egin ondoren, bidezkoak izan daitezkeen beste eginbide batzuen kalterik gabe. Diru-zenbateko horiek, ondorio guztietarako, diru-sarrera publikotzat joko dira.

Ez-betetzeagatiko espedientea hasi eta ebazteko eskumena Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari dagokio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2. artikuluan zehazten den guztizko zenbatekoa, edota, halaber, modalitate bakoitzari esleitutako zatikako zenbatekoak aldatu ahal izango dira, eskaturiko laguntzen guztizko kopurua kontuan edukiz, Osasun Saileko beste programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratu diren baliabide ekonomikoen funtzioan, baldin deialdi honen ebazpena baino lehenagokoak badira. Inguruabar hori jakitera emango da Osasun sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honetan aurreikusten ez den guztian aplikatu ahal izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezartzen duena, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen erredakzioan.

***Bigarrena.***– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz,.2002ko martxoaren 26a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

dimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las cantidades referidas tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución de expediente por incumplimiento el Director de Planificación y Ordenación Sanitaria.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe total consignado en artículo 2, así como los importes parciales asignados a cada modalidad, podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– En todo lo no previsto en la presente Orden, será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

***Segunda.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2002.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

I-a Eranskina

NAZIOARTEKO KONGRESUETARAKO POLTSA ESKABIDEA

Abizenak: ..........................................................................................................................................................
Izena: ..................................................................................................................................................................

Helbidea: ..................................................................................................................................................-zka.
Herria: ....................................................................................................... P.K.: ........... Telefonoa: ................................

Zein osasun erakundetan egiten du lan: .........................................................................................................................
Zerbitzua: ........................................................................................... Duen lanpostua: ................................................
Lanpostuaren izaera: ☐ Finkoa ☐ Behin-behinekoa ☐ Beste bat: ............................................

Batzarraren izen ofiziala: ...................................................................................................................................
...........................................................................................................................................................................

Batzarreko lekua: ..............................................................................................................................................
Hasiera eguna: ........................................................................................ Amaiera eguna: ...............................................

Aurrekontua:
Matrikula: ....................................................................................................... euro
Bidaia: ............................................................................................................ euro
Ostatua: .......................................................................................................... euro
Mantenua ........................................................................................................ euro
GUZTIRA: ...................................................................................................... euro

Eskuratu edo eskatu diren beste finantza iturri batzuk:

Deialdi honetan eskatutako diru-zenbatekoa: ........................................................euro

BANKUKO DATUAK: II. Eranskinean ageri den Hirugarren Interesatuaren Datuen Altari buruzko inprimakia bete.

Aurkezturiko agiriak («x» bat jarri):

[ ] Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
[ ] Eskatzailearen curriculum vitae-a eta egile izanik argitaratu zaizkion lanak.
[ ] Kongresuaren edo zientzi batzarraren programa eta Batzorde Zientifikoaren osaera
[ ] Ikerketa Batzordearen, Zuzendari Medikoaren edo Barrutiko Zuzendariordearen txostena.
[ ] Lantokiko zuzendariak bertara joateko emandako baimena.
[ ] Ponentziaren/komunikazioaren testua edo laburpena.
[ ] Zientzi batzarreko antolatzaileek komunikazioa onartzea.
[ ] Helburu bererako izan dituen beste finantza iturri batzuei buruzko zinpeko aitorpena.

Vitoria-Gasteiz,.........-ko..........................-aren......-a.

Eskatzailearen izenpea

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA

I-b Eranskina

ARGITALPENERAKO DIRULAGUNTZETARAKO ESKABIDEA

Abizenak: ..........................................................................................................................................................
Izena: ..................................................................................................................................................................
Helbidea: ...........................................................................................................................................................
Herria: ........................................................................................... P.K. ................. Telefonoa: ................................

Zein osasun erakundetan egiten du lan: .........................................................................................................
Zerbitzua: ......................................................................... Duen lanpostua: ...................................................
Lanpostuaren izaera: ☐ Finkoa ☐ Behin-behinekoa ☐ Beste bat: .............................................

Aldizkariaren izen ofiziala ...............................................................................................................................
..........................................................................................................................................................................
Aldizkariaren titulu laburtua: ............................................................................................ Eragin faktorea: ..........

Argitalpenaren data eta zenbakia: ...................................................................................................................

Argitaratutako artikuluaren titulua: .................................................................................................................
..........................................................................................................................................................................

BANKUKO DATUAK: II. Eranskinean ageri den Hirugarren Interesatuaren Datuen Altari buruzko inprimakia bete.

AURKEZTURIKO AGIRIAK («x» bat jarri):

[ ] Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia
[ ] Eskatzailearen curriculum vitae-a eta egile izanik argitaratu zaizkion lanak
[ ] Argitaraturiko edo onarturiko artikuluaren kopia. (1)

(1) Argitalpenetan, egileen lanlekua adierazi beharko da, dagokion hizkuntzan eta modu honetan: Zerbitzua, Sekzioa, etab..; ospitalearen edo zentroaren izen ofiziala; Udalerria; Euskal Autonomia Erkidegoa; Espainia..

Vitoria-Gasteiz,.........-ko..........................-aren......-a.

Eskatzailearen izenpea

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA

*Anexo I-a*

*SOLICITUD DE BOLSA A CONGRESO INTERNACIONAL*

*Apellidos:* ..........................................................................................................................................................
*Nombre:* ..........................................................................................................................................................

*Domicilio:* ............................................................................................................................................ *N.º*...........
*Localidad:* ................................................................................................................ *C.P.:* ......... *Teléfono:* ........................

*Institución sanitaria en la que trabaja:* .........................................................................................................................
*Servicio:* ............................................................................................................ *Puesto desempeñado:* ............................
*Carácter del puesto:* ☐ *Fijo* ☐ *Interino* ☐ *Otro* ......................................................

*Nombre oficial de la reunión* .......................................................................................................................................
.....................................................................................................................................................................................

*Lugar de celebración:* .............................................................................................................................................
*Fecha de comienzo:* .......................................................................................................... *Fecha de finalización:* ......................

*Presupuesto:*
*nscripción:* ........................................................................................................... *euros.*
*Desplazamiento:* .................................................................................................. *euros.*
*Manutención:* ....................................................................................................... *euros.*
*Alojamiento:* ........................................................................................................ *euros.*
*TOTAL:* ................................................................................................................ *euros.*

*Otras fuentes de financiación obtenidas o solicitadas:* ..................................................................................................

*Cuantía solicitada a esta convocatoria:* ..................................................................... *euros.*

*DATOS BANCARIOS: Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero que aparece en el Anexo II.*
*DOCUMENTACIÓN que se adjunta (marcar con una «x»):*

*{ }Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.*
*{ }Curriculum vitae del solicitante y publicaciones de las que es autor el solicitante.*
*{ }Programa del congreso o de la reunión científica y composición del Comité Científico*
*{ }Informe de la Comisión de Investigación, Director Médico o Subdirector de Area.*
*{ }Autorización de desplazamiento del Director del Centro de trabajo.*
*{ }Texto de la ponencia, comunicación o resumen.*
*{ }Aceptación de la comunicación por parte de la organización de la reunión científica.*
*{ }Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para el mismo fin.*

*En................................., a ..... de.................. de...........*

*Firma del solicitante*

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACION SANITARIA*

*Anexo I-b*

*SOLICITUD DE AYUDA A PUBLICACION DE ARTICULOS*

*Apellidos:* ..........................................................................................................................................................
*Nombre:* ..........................................................................................................................................................
*Domicilio:* ..........................................................................................................................................................
*Localidad:* ........................................................................................................ *C.P.:* ..........*Teléfono:* ............................

*Institución sanitaria en la que trabaja:* ..........................................................................................................................
*Servicio:* ........................................................................................................ *Puesto desempeñado:* ...............................
*Carácter del puesto:* ☐ *Fijo* ☐ *Interino* ☐ *Otro* ......................................................

*Nombre oficial de la revista:*
..........................................................................................................................................................
*Título abreviado de la revista:* ............................................................................................ *Factor de impacto:* ..............
*Fecha y número de publicación:*
*Título del Artículo publicado* ..........................................................................................................................

*DATOS BANCARIOS: Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el Anexo II.*

*Documentación que se adjunta (marcar con una «x»):*
*{ }Fotocopia del Documento Nacional de Identidad*
*{ }Curriculum vitae del solicitante y publicaciones de las que es autor*
*{ }Copia del artículo publicado o aceptado. (1)*

*(1) Las publicaciones deberán indicar el lugar de trabajo de sus autores, en el idioma correspondiente, de la siguiente forma: Servicio, Sección, etc.; nombre oficial del Hospital o centro; Municipio; País Vasco; España.*

*En ..............................., a .... de .................. de..........*

*Firma del solicitante*

*ILMO. SR. DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACION SANITARIA*

## II.ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESATUA
*ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO*

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
*DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO* (A)

(1) N.A.N./I.F.K.
*D.N.I./C.I.F* ..........................................................................

(2) Bi abizenak eta izena/Sozietatearen izena
*Dos apellidos y nombre/Razón Social* ..........................................................................
..........................................................................

HELBIDERATZE-DATUAK
*DATOS DE DOMICILIACION* (B)

Helbidea
*Dirección* ..........................................................................

Posta kodea
*Código* .......................................... Udala
*Población* ..........................................

Lurraldea
*Provincia* ..........................................................................

BANKUAREN DATUAK / *DATOS BANCARIOS* (C)

(1) Bankua / *Banco* □□□□

(2) Agentzia / *Agencia* □□□□

(3) K.D. / *D.C.* □□□□ K/Korrontea / *C.Corriente* □□□□□□□□□□

(4) Jabea / *Titular* ..........................................................................

| Bankuaren adostasuna<br>*Conforme Banco* | Hirugarrenaren adostasuna<br>*Conforme Tercero* | Sailaren onespena<br>*V.ºB.º Departamento* | Kontabilitatearen onespena<br>*V.ºB.º Contabilidad* |
|---|---|---|---|
| Sinadura eta zigilua<br>*Sello y Firma (D)* | Sinadura eta zigilua<br>*Sello y Firma (E)* | Baimendutako sinadura<br>*Firma Autorizada (F)* | Baimendutako sinadura<br>*Firma Autorizada (G)* |